# MENDE BATETAKO KRONOLOGIA (1491-1591)

Historian zehar gertakari erakargarririk aberatsenak biltzen dituen mendeetarikoa, ia-ia XVI. mende osoa dugu; idazle eta santu ospetsuak, erreforma eta kultur mugimenduak, erlijio zein politika alorrean irakidura izugarria izandako mendea.

Gure kronologia Loiolako Inazioren jaiotze-urtean, 1491.ean, hasten da eta Joan Gurutzekoaren heriotz-urtean, 1591.ean, bukatzen.

Hemen, bien bizitzako unerik garrantzitsuenak, erlijio, politika, gizarte eta kultura alorretako beste zenbait gertakari nabarmenekin nahasian bat eginik datozela agertuko dira; eta, batez ere Europakoak diren gertakarien artean, Euskal Herrikoak barnesartzen ditugu.

Kronologia xume hau egiteko jarraiko liburu ezagunok (KURT M. JUNG, *Weltgeschichte in einem Griff*. Berlin 1979, 1288 orr.; *Crónica de la humanidad*. Barcelona 1987, 1184 orr.; *Crónica de España*, Barcelona 1988. 1.tomoa; GERTRAUDE WILHELM, *Hermes Hand Lexikon. Synchronopse der Weltliteratur*, Düsseldorf 1983, 288 orr.; *L'Histoire et ses méthodes*. (Encyclopédie de la Pléiade), Bruges 1961, 1774 orr.; BERNARDINO LLORCA, *Atlas y cuadros sincrónicos de historia eclesiástica*. Barcelona... 1950) eta San Inaziori (adibidez: Ig.Iparragirre: *Obras Completas de San Ignacio de Loyola. Edición manual*. Madrid 1963. BAC 86 ...) zein Joan Gurutzeko doneari buruzko beste zenbait liburu etab... erabilli ditugu.

JULEN URKIZA - ANA URKIZA
Zornotza-Larrea - Ondarroa

| | INAZIO | ELIZA |
| --- | --- | --- |
| 1491 | Hamairugarren semea izengo zen Inazio urrian jaio Loiolako Dorre-etxean (Azpeitia-Gipuzkoa).  | Cesare Borgia, Iruñeko gotzain (1491-1492). Nafarroako erregeek izendapenaren aurka gora jo zuten. Ez zuen aginpidea hartu. |
| 1492 |  | Antoniotto Gentil Pallavicini, Iruñeko gotzain (1492-1507). Martin de Azpilkuetaren jaiotza Alejandro VI.a (1492-1503). |
| 1493 | | Cesare Borgia kardinala izendatua (1495-1504).  |

| HISTOR-: Gizart-polit. | ARTEA | KULTURA, literat... |
|---|---|---|
| Juduak kristau bihurtzera edo erreinutik alde egitera behartzen zituen agindua aldarrikatu Errege Katolikoek. | | A. Poliziano (1454-1494): *Orfeo*. |
| <br>Espainiako erreinua islamiarren menpetik askatzeari amaiera eman zion Granada hartzea.<br>Kolon-ek (X-12an) Amerika aurkitu. | S. Marie delle Grazie Milano-n.<br> | E.A. de Nebrija (1449-1522): *Gramática castellana*. |
| 1493-1496: Kolon-en bigarren bidaia.<br>Inka Huayna Kapak'ek (1493-1527) erreinua bere seme bien artean banatu. Banaketa honek Peru konkistatzeko erraztasuna eman zion Pizarro-ri.<br>Ameriketako Lurralde aurkitu berriak Espainia eta Portugalen artean banatzen zuen Alelandro VI.aren «Inter caeterae divinae» bula.<br>Errege Katolikoek, «Treviño-ko kontea» titulua eman Antonio de Manrique-ri. Naiara-ko konteek Treviño Gaztelaren alde edukiko zuten beti. | | |

| | INAZIO | ELIZA |
|---|---|---|
| 1494 | | Jaime de Siera, Kalagorriko gotzain (1494-1499). |
| 1495 | | Jean III de la Barrière, Baionako gotzain (1495-1504).<br>Apaizteriaren erreformarako Tours-eko bilera. |
| 1496 | | |

| HISTOR-: Gizart-polit. | ARTEA | KULTURA, literat... |
|---|---|---|
| |   | Pico de la Mirandola (1463-1494).<br>Fr. Rabelais-en jaiotza († 1533).<br>S. Brant: *Das Narrenschif.* |
| Cisneros-ek erreforma egin Espainian. | <br>Leonardo da Vinci-ren «Azken afaria» (1495-1498). | |
| Alejandro VI.ak «Maiestate katolikoa» titulua eman Fernando eta Isabel-i. | | G. Savonarola-k Boccaccio eta Petrarca-ren liburuak sutan erre. |

| | INAZIO | ELIZA |
|---|---|---|
| 1497 | | G. Savonarola Aita Santuaren aurka jaiki. |
| 1498 | | G. Savonarola eskomikatu, kondenatu, urkatu eta sutan errea. |
| 1499 | | Iruñeko elizbarrutiko sinodoa (gotzain: A. Gentil Pallavicini): bertako konstituzioak 1501.ean argitaratu ziren. |

| HISTOR-: Gizart-polit. | ARTEA | KULTURA, literat... |
|---|---|---|
| Vasko de Gama-k «Itxaropen Oneko» burua iraganez Indiara eginiko bidaia. | | Philipp Melanchton (1497-1560). |
| Kolon-en hirugarren bidaia.<br>Frantziako Louis XII.a (1498-1515). | <br>Apokalipsiko lau zaldunak (Albert Dürer-en xilografia). | Frantziako Louis.ak Pavia-ko bibliotekako eskuskribuen bilduma bat eraman Blois-era. Erret bibliotekako lehen oinarria. |
| Amerigo Vespucci-k, Hego Ameriketako ipar-ekialdeko itsasertza arakatu. Lehen kontakizunak eta mapak aurkeztu zituen Europan. | <br>Michelangelo-ren *Pietà*. | <br>¶ Tragicomedia d Calisto y Melibea.<br>Enla qual se contiene de mas de su agradable y dulce estilo: muchas sentencias philosophales: y auisos muy necessarios para mancebos: mostrando les los engaños q estan encerrados en seruientes y alcahuetas.<br>Fernando de Rojas-ek *Tragicomedia de Calisto y Melibea (La Celestina)* idatzi (1491). |

| | INAZIO | ELIZA |
|---|---|---|
| 1500 | | *Corpus Iuris Canonici.*<br>Indiako lehen martiriak. |
| 1501 | | |
| 1502 | | Frantziskotarrek beren Ameriketako lehen komentua eraiki, Concepción de la Vega izeneko Dominikar Herrialdean. |

| HISTOR-: Gizart-polit. | ARTEA | KULTURA, literat... |
|---|---|---|
| Pedro Alvarez Cabral, Afrikatik Indiarako bidea belauntziz egiten hasi eta Brasil-era heldu. Sorginkeria gunea Anboton (Durango). | Kolorerik gabeko beiraren fabrikazioa Murano-n. | |
| Frantziako Louis XIII.ak eta Fernando Katolikoak Napoles-eko erreinua konkistatu. | | |
| Kolon-en laugarren bidaia Ameriketara. | | |

| | INAZIO | ELIZA |
|---|---|---|
| *1503* |  | Pio III.a (1503).<br>Julio II.a (1503-1513).<br>Fadrique de Portugal, Kalagorriko gotzain (1503-1508).<br><br>Julio II a (Rafael-ek egina). |
| 1504 | | Beltrand I. Lahet, Baionako gotzain (1504-1519). |
| 1505 | | Cisneros-ek klaustro erreformari hasiera eman. |

HISTOR-: Gizart-polit. | ARTEA | KULTURA, literat...

Isabel Katolikoak agindua eman Kolonietako bizilagunei nolako tratua eman behar zitzaien adierazi: «...que nadie... debe atreverse a apresar a alguno de los indios... Nosotros, para causarles beneficio, les hemos hecho quitar de estas gentes y ponerles en completa libertad. Después de todos estos sucesos, y para convencer más aún a los indios y animarles a ser cristianos, hemos enviado...».

*Mona Lisa*, Leonardo da Vinci-ren «La Gioconda» (c. 1503).



Erasmus v.Rotterdam: *Enchiridion militis Christiani*.

Julio II.ak arteak bultzatu eta Michelangelo-ri laguntza eman.

Nostradamus (Michel de Notre-Dame) (1503-1566).

Garcilaso de la Vega (1503-1536).



† Isabel Katolikoa.

Amerigo Vespucci-ren kontakizunak argitaratu († 1512). Liburu honetan, aurkituriko lurrek kontinente bakar bat osotzen zutela azaltzen zuen: hori zela eta jarri omen zion M. Waldseemüller-en mapamundian agertzen den bezala «Amerika» izena.

Michelangelo-ren *Dabid*.




Peter Henlein-ek patrikan erabiltzeko ordularia asmatu Nürnbergen.

| | INAZIO | ELIZA |
|---|---|---|
| *1506* | *Arevalo-ra (Avila) Fernando Katolikoaren Kontalari Nagusia* zen Juan Velázquez de Cuellar jaunaren morroi gisa. | Xabierko Frantzisko donearen jaiotza. |
| 1507 | | <br>Fazio Santori, Iruñeko gotzain (1507-1510). |
| 1508 | | Espainiako erregeari elizak, batez ere Ameriketan, ereikitzeko eta antolatzeko baimena ematen zion Juan II.aren «Universae ecclesiae regni» bula. |

| HISTOR-:Gizart-polit. | ARTEA | KULTURA, literat... |
|---|---|---|
| Felipe «Ederra» hil zenean, Cisneros-ek hartu erretortasuna. | *Julio II.ak S. Pedro elizako lehen harria* jarri eta eraiketa lanak Bramante-ren esku utzi. Erroman, Greziako artearen berraurkikuntzaren ezaugarri zen Laocoonte-ren aurkikuntza. |  |
| Cesare Borgia (1475-1507) gerlan hil Bianan (Nafarroa), Nafarroako errege zen bere ezkonanaiaren zerbitzuan. Sorginkeria gunea Nafarroan. |  Raffaelo: Familia Donea | |
| Izurriteak eta jarraian krisialdi ekonomiko orokorra. Prezioen gorakada. | Julio II.ak «Capera Sixtina» deritzaneko gangaren apainketa Michelangelo-ren esku utzi.  Capera Sixtina (1508-1512). | García Ordóñez Montalvo: *Amadís de Gaula*. Cisneros-ek Alkalako Unibertsitatea sortu. |

| | INAZIO | ELIZA |
|---|---|---|
| *1509* | | |
| 1510 | | Amaneo de Labrit, Iruñeko gotzain (1510-1520).  |
| 1511 | | |

| HISTOR-: Gizart-polit. | ARTEA | KULTURA, literat... |
|---|---|---|
| Sevilla: Indietako Kontseiluaren sorrera.<br><br>Erresuma Batuko Enrike VIII.a (1509-1547). | Julio II.ak Vatikano-ko egoitzat apaintzeko Rafaeli ardura eman.<br><br>Stanza della Segnatura (1511.an bukatua). | Lefèvre d'Etaples: *Quintuplex psalterium*. |
| Sevilla: Kontratazio Etxeak Afrikako esklabuak Ameriketara eramatea onartu. | † Sandro Botticelli (1445-1510).<br><br>Botticelli-ren «Venus-en sorrera». | |
| Frantziako Louis XII.aren aurka Julio II.ak Aragoi eta Veneziako Fernandorekin eginiko Liga Santua.<br>Bilboko portuaren aberastasuna Kontsuletxe propioaren sorreraren bidez handitua.<br>Erregearen aurrean Indiarren defendatzaile zen A. Montesinos, *Informatio iuridica in Indonorum defensionem* deituaren egile. |  | P. Gringore: *Jeu du prince des sots et de la mère sotte*.<br>Erasmus: *Erotasunaren goraipamena*.<br>Erasmus |

| | INAZIO | ELIZA |
|---|---|---|
| 1512 | | 1512-1517: Letran-eko 5.Kontzilioa: Kontzilioak Aita Santuaren gainetik nagusigoa zuela defendatzen zuen doktrina arbuiatu zuena. Erromako kuria eta apaizteria erreformatzeko saioak. Aita Santuaren hautaketetako simoniaren gaitsezpena. Sermoigintzari eta liburuen inprimaketari buruzko legegintza. |
| 1513 | | Leon X.a (1513-1521).  |
| 1514 | | |

| HISTOR-: *Gizart-polit.* | ARTEA | KULTURA, literat... |
|---|---|---|
| Gaztelako koroa Alva-ko dukearen bidez, bidegabekeria osoz erasotu ondoren, Nafarroako erreinuaren jabe egin.<br>Nafarroan Inkisizioa ezartzea.<br>Domingo de Salazar, misiolari eta Amerikar indiarren defendatzaile izan zenaren jaiotza (1512-1594).<br>Zuberoa Frantziako koroaren *menpe jarria*. | | |
| Nuñez de Balboa-k Pazifikoa aurkitu. | <br>Rafaelen *Madonna* (Sixtina). | Platon-en lanen «printze» deritzan argitalpena.<br>Maquiavelo-ren «Il principe». |
| | | |

| | INAZIO | ELIZA |
|---|---|---|
| 1515 | Bere aurkako prozesuan astuntzat jo zen lege-haustea egin zuen Azpeitin. | Martxoak 28: Sta. Teresaren jaiotza Avilan.<br>Barkazio bula «S. Pedrorentzat».<br>Juan Castellanos de Villalva, Kalagorriko gotzain (1515-1522). |
| 1516 | | |
| 1517 | Nafarroako errege zen Antonio Manrike-ren zerbitzupean haundiki gisa. | Letran-eko V.Kontzilioaren bukaera.<br>Martin Luther-ek, Wittenberg-eko gazteluko elizako atean, Aita Santuaren bulen aurkako bere 95 tesiak jarri. |

| HISTOR-: Gizart-polit. | ARTEA | KULTURA, literat... |
|---|---|---|
| † Fernando Katolikoa.<br>Frantziako Frantzisko I.a (1515-1547). | Michelangelo: Moises (1513-1516)<br> | <br>*Till Eulenspiegel.* |
| Cisneros-ek beltzak Ameriketara eramatea debekatu.<br>Karlos I.a (V.a) (1516-1556). | | Erasmus-ek Testamentu Berria gerkeratik latinera itzuli.<br>T. Morus: *Utopia*. |
| Hernan Cortes-ek Mexiko-ren konkistari hasiera eman.<br><br>† Fr. Jiménez de Cisneros. | | <br>Alcala-ko *Biblia Poliglota*. |

INAZIO | ELIZA

1518 LOYOLA - AREVALO - NAJERA - 1520-arte.




1519

Eztabaida Leipzig-en: Luther eta Joh. Eck-en artean elkar ulertzeko saialdia.

Hector d'Ally de R., Baionako gotzain (1519-1524).

1520 Naxera-ren konkistan parte hartu zuen. Ez zuen gerlako harrapakina ikutu nahi izan.

«Exurge Domine» bulak Luther heresetzat kondenatu.

Alejandro Cesarini, Iruñeko gotzain (1520-1538).

| *HISTOR-: Gizart-polit.* | ARTEA | KULTURA, literat.,... |
| --- | --- | --- |
| | | |
| † Maximiliano I.a, enperadorea.<br>Karlos I.aren enperadore autaketa.<br>Magallanes eta Elkanok Lurraren lehen itsasozko ingurubirari hasiera eman. | † Leonardo da Vinci.<br><br>Chambord gaztelua (1519-1540). | Fernández de Enciso: *Suma de geografía.* |
| Komunarien antolaketa: Juan de Padilla, beraien gerragizon taldearen kapitain jeneral.<br>1520-21: «komunarien gisako» zentralismoaren aurkako mugimendua Gipuzkoan —Hernani eta Tolosan—: 44ri heriotz zigorra ezarri. | † Raffaelo Sanzio. | Juan Boscan eta Garcilaso de la Vega-ren lana. |

| | INAZIO | ELIZA |
|---|---|---|
| 1521 | Maiatzak 20: frantsez armadak inguratuta zeukan Iruñeko babestokiaren defentsan eskuineko hankan zauritua.<br>Ekainak 24: Gaisoen Igurtzia hartu Loiolan.<br>Abustu-Iraila: zaldunen liburuak eskatu zituenean liburu elizkoiak eman ziskioten: Konbertsioa. Ama Birjina ikustea.<br>Kristo eta Santuen bizitzak irakurtzen aritu zen. | M. Luther, Carlos V.aren aurrean aurkeztu Worms-eko Dietan. |
| 1522 | Otsail-Martxoa: Arantzazu, Navarrete eta Montserrat-era. Bidean kastitate botua egin zuen.<br>Apiril-Uztaila: otoitz eta penitentzia bizimodua Manresa-n.<br>Abuztu-Iraila: «Gogo-ihardunak» idazten hasi. | Zwinglio-k hasiera eman erreformari Zürich-en.<br>Adriano VI.a (1522-1523).<br>Kalagorriko elizbarrutiko sinodoa (gotzain: Villalva-ko Juan Castellanos). |
| 1523 | Erromesaldiak: Bartzelonatik Jerusalem-era Erromatik zehar. | |

| HISTOR-: Gizart-polit. | ARTEA | KULTURA, literat... |
|---|---|---|
| Komunarien hondamena Villalaren.<br>Espainia eta Frantziaren arteko gerlak hasi.<br>Turkiarrek Belgrad konkistatu.<br>Hernán Cortés-ek Mexikoko konkistaldia bukatu. | <br>Der Römischen Kaiserlichen Maiestat<br>Edict wider Martin Luthers Bücher vnd leere seine anhenger<br>Jr Karl der fünfft von gottes gnaden. | L. Ariosto: *Orlando furioso*.<br>Worms-en, Luther eta Luther-en jarraitzaileen aurka emaniko agindua. |
| Sebastian Elkano munduari lehen bira eman ondoren Iberia Penintsulara heldu. | <br>Correggio-ren «Gabon gaua» (1522-1530) (Dresden). | M. Luther-ek itzulitako Bibliaren atal bat argitara emana.<br>Joannes de Yciar. Durangon jaioa (1522?). Kaligrafo bikain. |
| Euskal arrantzaleek lehenengoz artoa ekarri Europara eta Ustaritzeko zelaian erein.<br>Karlos V.ak, Zuberoa eta Lapurdira sartu eta bertako eliza, monastegi eta abar hondatuz, triskantza handia egin. | | |

| | INAZIO | ELIZA |
|---|---|---|
| 1524 | Otsaila: Itzultzean, Venezia-tik Bartzelonara.   | Jean IV du Bellay, Baionako gotzain (1524-1532).  Modus recitandi horas secūdū ritum insignis Ecclesie Cathedralis Pampilonēsi. in generali synodo diligentissime ordinatus. Anno. M. D. xxiiij. |
| 1525 | «Gramatika» ikasten Bartzelonan. |   Sinodoko liturgi-arauak Iruña-1524 |
| 1526 | «Arteak» (filosofia) ikastera Alcala-ra. | Espira-ko 1.Dieta. Enperadorepeko estatu bakoitza, nahi zuen erlijioa aukeratzeko aske izango zela zioena. (Carlos V.ak ez zuen onartu). |

| HISTOR-: Gizart-polit. | ARTEA | KULTURA, literat... |
|---|---|---|
| Nekazarien gerla Alemanian. | | Jean Lamaire de Belges (1473-1524). |
| M. *Luther, klaustro bizitza u-tzitako* Catalina de Bora mojarekin ezkondu.<br>Frantzisko I.a Pavia-n menperatua eta Juan de Urbieta gipuzkoarrak preso hartua.<br>Taldekako sorginkeria gertakizun garrantzitsua Nafarroan. | | |
| Pizarro-k Peru konkistatu.<br>Mohacs-eko gerlaren ondoren, Hungariak bere askatasuna galdu.<br>Bizkaiko Foru Berria. | | Viena-ko Biblioteka Nazionalaren eraikuntza.<br>Europara patata ekarri zuen C. de Lecluse jaunaren jaiotza (1526-1609). |

| | INAZIO | ELIZA |
|---|---|---|
| 1527 |   | |
| 1528 | Parisera joan eta Monteagudo ikastetxean latina ikasten. | |
| 1529 | Flandes-era joan eta bere Gogo-ihardunak eman. Parisera itzuli eta «Arteak» ikasten jarraitu.<br>Fabro eta Xabierko Frantziskorekin harremanetan hasi. | Espira-ko 2.Dieta: Berriro Worms-eko agintea indarrean jarri zuena. |

| HISTOR-: Gizart-polit. | ARTEA | KULTURA, literat... |
|---|---|---|
| *Karlos V.aren gerlariek Erroman harrapaketan sartu («Saco di Roma»).*<br>Karlos V. eta Frantzisko I.aren arteko bigarren gerla: Frantzisko I.ak baliogabekotzat jo Madrideko hitzarmeneko baldintzak. | <br>*Fontainebleau-ko gazteluaren erainkuntzaren hasiera.* | † Niccolo Machiavelo. |
| *Zwinglio eta Luther-ren erlijioari* buruzko elkarrizketak porrot egin, Luther-ek zeukan Eukaristiaren interpretazioari eutsi ziolako. | *Albert Dürer (1472-1528).* Autoerretratoa. |  |
| Karlos V. eta Frantzisko I.aren arteko Kambrai-ko bakea.<br>Soliman-ek, turkiarrek Viena setiatzean izandako porrota.<br>Gipuzkoako Probintziako Ordenantzak: Batzar Nagusietako ordezkariak gaztelania irakurtzen eta idazten jakitera behartzen zituztena. | <br>M. Luther-en koadroa Lucas Granach-ek 1529.ean margotua. | Guillaume Budé: *Commentaires sur la langue grecque.*<br>1529-1600: Fulvio Orsini-ren moneta bilduma. |

| | INAZIO | ELIZA |
|---|---|---|
| 1530 | Ikasketen jarraipena Parisen.<br>Abuztu-Iraila: bigarren bidaia Flandes-era. | Augsburg-eko Dieta: enperadorea kristauen batasuna gordetzen saiatu zenekoa. Protestanteek bere eritziak Confessio Augustana zeritzanean aurkeztu zituzten. |
| 1531 | «Arteak» (filosofia) ikasten jarraitu Parisen.<br>Abuztu-Iraila: hirugarren bidaia Flandes-era eta Londres-era iragan. | |
| 1532 | Urrila: «Arteetan» batxiler graduatu. | Iruñeko sinodoetako *Constitutiones sinodales* argitaratu.<br>Etienne Ponchier, Baionako gotzain (1532-1550). |

| HISTOR-: Gizart-polit. | ARTEA | KULTURA, literat... |
|---|---|---|
| Aita Santuak Karlos V.a enperadore koroatu Bolonian. | | «Imprimeur du Roi» mota sortu Parisen.<br>Frantzisko I.ak Frantziako ikastetxea sortu. |
| Enrike VIII.a Erresuma Batuko elizaren buru izaten hasi.<br>† Zwinglio. | | Erasmus-ek Aristolelesen lan guztien lehen argitalpena egin.<br>Nafarroako Margarita: *Miroir de l'âme pécheresse*. |
| Nürnberg-eko erlijio bakea zela eta Karlos V.ak erlijio protestantearen praktika onartu hurrengo urtean egingo zen Kontzilioan erabakitakoa ikusi arte.<br>Errusia eta Herbehereen (Nederlanda) zein Erresuma Batuaren arteko merkataritzaren hasiera. | | Fr. Rabelais: *Pantagruel* (eta *Gargantua*).<br>N. Machiavelli: *Il Principe* argitaratu. |

| | INAZIO | ELIZA |
|---|---|---|
| 1533 | Martxoa: «Arteetako» lizentziatura azterketak. | Kristiano III.ak sarrera eman protestantismoari Dinamarkan.<br>Baionako elizbarrutiko sinodoa (gotzain: E. de Ponchier): *Statatua Synodalia*.<br> |
| 1534 | Apirila: «Arteetako» irakasle gradua lortu.<br>Abuztuak 15: Montmatre-en botuak egin.<br>Urte honetan, gogo-ihardunaldiak eman zizkien Fabro doatsu, Lainez, Salmeron, Rodríguez, Bobadilla eta Xabierko Frantzisko doneari. | Paulo III.a (1534-1549).<br>Tizianok 1545.ean margotua. |
| 1535 | Apirila: Paristik Azpeitiara.<br>Maiatz-Uztaila: Azpeitian, kristau-ikasbidea azaldu, sermoiak egin, bakeak ezarri, gogo-ihardunaldiak eman eta txiroentzako hornipiloak ezartzen aritu. Ikustaldia egitera Loiolara.<br>Abuztu-Abendua: Madrid, Toledo, Valentzia, Genoa eta Boloniara. |  |

| HISTOR-: Gizart-polit. | ARTEA | KULTURA, literat... |
|---|---|---|
| Klemente VII.ak Erresuma Batuko Enrike VIII.a eskomikatu.<br>Frai Juan de Zumarraga-k enperadoreari gutuna idatzi, komenigarri zela Mexiko-ko bere elizbarrutian inprimategi bat ezartzea esanez. | Karlos V. (Tiziano.k 1533ean).<br> | Alonso de Ercilla y Zuñiga (1533-1594).<br>Lodovico Ariosto (1474-1533).<br>Esteban Garibai (1533-1599). |
| Enrike VIII.ak «Nagusigo Agiriak»deituak argitaratu eta Erresuma Batuko eliza Erromakoarengandik banatu (Zioa: Aita Santuak Enrike VIII.a eta Katarina de Anjou-ren arteko dibortzioa ez onartzea zelarik). | | Lehen biblia protestantea frantsezeraz. |
| «Nagusigo Agiria» arbuiatzen zuten Jon Fisher eta Tomas Morusen martiritza.<br>Pizarro-k Ciudad de los Reyes (Lima) eraiki.<br>Kalbinismoaren hasiera Frantzian. | | Juan de Zumarraga-k Amerikako Kontinentean lehena izan zen inprimategia jarri Mexikon. |

| | INAZIO | ELIZA |
|---|---|---|
| 1536 | Venezian teologia ikasi eta gogo-ihardunak ematen. | Erresuma Batuan komentuak kentzen hasi: istilu sozial eta erlijiozkoak. |
| 1537 | Paris-eko lagunekin Erroman.<br>Ekainak 24: apaiz egitea.<br>Iraila: bere laguntaldeko batzuren apaiz egitea.<br>Veneziara joan eta Erromara itzuli. | Sta. Teresak Avila-ko «La Encarnación» komentuan profesioa egin.<br>Indioak arimadunak eta benetako pertsonak eta, beraz, beren buruen eta ondasunen jabe izateko gai zirela aldarrikatzen zuen Paulo III.aren bula. |



| HISTOR-: Gizart-polit. | ARTEA | KULTURA, literat... |
|---|---|---|
| Karlos V. eta Frantzisko I.aren arteko hirugarren gerla 1538.ean amaitu zen Aita Santuaren eraginez 10 urtetako menia ezarri zutelarik. | | † Garcilaso de la Vega.<br>† Erasmus v. Rotterdam.<br>Kalbinok bere *Instituzio cristiana* latineraz argitaratu.<br>Toribio de Benavente frantziskotarrak *Historia de los indios de Nueva España*; 1558.ean argitaratua. |
| | <br>Erromako Kapitolioko plaza Michelangelo-k diseinatua (1537). | 1537.urtearen inguruan Diman, Pedro de Madariaga, kaligrafo euskaltzalea jaio.<br> |

| | INAZIO | ELIZA |
|---|---|---|
| 1538 | Garizumara arte: Erroman gogo ihardunaldiak eman, sermoiak egin eta karitate lanetan.<br>Azaroa: bere lagunekin batera, Montmatre-ko botua zela eta, burua eskaini Aita Santuari. | Enrike VIII.aren eskomikua.<br>Juan Rena, Iruñeko gotzain (1538-1539).<br> |
| 1539 | Martxo-Ekaina: erlijioso-ordena berri baten eraketari buruzko eztabaidak.<br>Ekain-abuztua: lagunkideak norabide ezberdinak hartzen hasi ziren.<br>Irailak 3: Paulo III.ak Institutuaren formula onartu. | Pedro Pacheco, Iruñeko gotzain (1539-1545).<br> |
| 1540 | Martxoak 4: Simon Rodríguez Indiarantz abiatu.<br>Martxoak 16: Xabierko Frantziskok Indiarako bidea hartu.<br>Irailak 26: «Regimini militantes Ecclesiae» bula bidez Jesusen Lagundia berretsi, 60 botudunen kopuru muga ezarriz. | |

| HISTOR-: Gizart-polit. | ARTEA | KULTURA, literat... |
|---|---|---|
| Kalbino Genova-tik desterratua izan ondoren Strasburg-en ezarri.<br>Sorginkeria batzu Bizkaian.<br>Karlos V.eta Frantzisko I.ak 10 urteko menia ezarri.<br>Juan de Zumarragak bultzatutako Amerikako lehen inprimategia eta lehen unibertsitatea lanean Mexikon. | Domingotarren Unibertsitatea Mexikon.<br> | Erresuma Batuan bataio, ezkontza eta lur-emateak erregistratzeko Erret Agindua.<br>Juan Luis Vives-ek (1492-1540) *Del alma y de la vida* eta *Ejercicios de lengua latina* argitaratu. |
| Enrike VIII.ak monastegi guztiak itxi eta beraietako ondasun guztiak koroarentzat izatea agindu.<br>Frantzian bataio, ezkontza eta lur-emateen erregistroak egitea agingu (Villers-Cotterêts-eko ordenantzak). | | Frantzisko I.ak auzitegietan frantsesa erabiltzeko agindua eman (Villers Cotterêts-eko ordenantzak). |
| Erreforma protestantea Saxonia eta Bradenburg-en sartu. | | † Francisco de Osuna.<br>J.J. Scaliger (1540-1609): *De re nummaria*.<br>Oñatiko Unibertsitatea eraikitzea onartua. |

| | INAZIO | JOAN | ELIZA |
|---|---|---|---|
| *1541* | Martxoa: Inazio eta Coduri 1541-eko Konstituzioak idazten hasi. Ontzat hartuak eta izenpetuak izan ziran.<br>Apirilak 8: Iñazio ahobatez Jeneral hautatua. Iñaziok uko egin baina berriro hautatua.<br>Ikastetxeetarako lehen konstituzioak. | | |
| 1542 | Martxoak 18: Inazio, Paulo III. eta Portugal-eko errege Juan III.aren arteko adiezina konpontzen saiatu.<br>Martxoak 21: kristau eginiko juduen aldeko Brebea lortu.<br>Abenduak 10: azken egunetan 250 gutun idatzi zituela aitortu. | Joan Gurutzekoa Fontiveros-en (Avila) jaioa; Gonzalo de Yepes eta Catalina Alvarez senar-emazteen semea.<br><br>Batai-harria. | Xabierko Frantzisko donea Indietara heltzea.<br>Paulo III.ak Ofizio Santua sortu. |
| 1543 | Otsailak 19: judaismotik kristau eginikoentzat ikastetxe bat eraikitzea onartzen zuen bula. | | Baionako «*Missalae ad usum ecclesie cathedralis*» argitaratu. |

| HISTOR-: Gizart-polit. | ARTEA | KULTURA, literat... |
| --- | --- | --- |
| Fr. Pizarro Perun asesinatuta hil.<br>Kalbino Genève-n bere eliza antolatzen hasi eta John Knox-en Erreforma Eskozian. | 1534-1541: Michelangelo-k «Azken auzia» freskoa bukatu Kapera Sixtinan.<br> | *«Institutio christiana»* frantsesez.<br>Zaragoza-ko unibertsitatearen erainkuntza.<br>Aita Santuaren 1540.eko bulak onartuta Oñatiko Unibertsitatearen erainkuntza.<br> |
| Frantzisko I.ak Karlos V.aren aurkako laugarren gerla hasi.<br>Enrike VIII.ak, bere bostgarren emazte zen Katalina Howard hiltzeko agindua eman. | | Juan Boscan (1493-1542). |
|  |  | Kopernicus (1473-1543), bere *De revolutionibus orbium caelestium* liburua argitaratzeko zebilela hil. |

| | INAZIO | JOAN | ELIZA |
|---|---|---|---|
| 1544 | Lau hilabetetan gaisorik.<br>Urtarrilla: Damuturiko emakumeentzat «Santa Maria etxea» ireki; eta txirotasun kontutik hasita konstituzioak idazteari ekin.<br>Otsail-Martxoak: botudunen etxeeta txirotasunari buruz ziarduen «Egunkari izpirituala» zeritzanaren zatia idatzi zuen.<br>Martxoak 14: Jesusen Lagundia berretsi eta aurreragoko botudunen kopuru muga kentzen zuen *Iniunctum nobis* bula. | | Iruñeko elizbarrutiko sinodoa (gotzain: Pedro Pacheco): bertako *«Constitutiones Sinodales»* argitaratu ziren. |
| 1545 | Otsaila: Gure eskuetara heldu den «Egunkari izpirituala» idaztea utzi.<br>Jainko ikuste eta argialdi ugari.<br>Iraila: Paulo III.arekin Porgugalen Inkisizioa sartzeari buruz tratatzeko, «Montefiascore-ra».<br>Paduako ikastetxearen eraiketa. | Aita hil ondoren, ama eta anaiakin Torrijos y Galvez-era aldatua, bizitzeko aukera bila. Aurkitu ez eta berriro Fontiveros-era itzuli behar. | Juan Bernal Díaz de Luco, Kalagorriko gotzain (1545-1556).<br>Trento-ko Kontzilioren biltzea (1545-1563): Protestantismoaren aurrean Fede Katolikoa sendotzea.<br>Antonio Fonseca, Iruñeko gotzain (1545-1550). |
| 1546 | Abuztuak 1: Fabro dohatsuaren heriotza.<br>Urriak 1: Lagundiko emakumezkoen adarra debekatzeko konstituzio Apostolikoa.<br>Urriak 9: Francisco de Borja donea lagundian onartzea. | | Bartolomé Carranza-k *Summa Conciliorum: Quattuor Controversiae*. |


SVMMA
CONCILIORVM
ET PONTIFICVM
A PETRO vsq; ad Paulũ tertium
succinctè complectens omnia,
quæ alibi sparsim tra-
dita sunt,

*Per. F. Bartholomæum Carranzam Mirandēn. instituti sancti Dominici Theologiæ professorem, & regentem in collegio sancti Grego. in Valle Oletana, nunc denuo per ipsummet recognita, & aucta.*

*Quæ omnia versa pagella indicabit.*

1 5 4 9

SALMANTICÆ
*Apud Andream de Portonariis.*

| HISTOR-: Gizart-polit. | ARTEA | KULTURA, literat... |
|---|---|---|
| Crepy-ko bakearen bidez Karlos V. eta Frantzisko I.aren arteko laugarren gerlari bukaera eman. | | Frai Luis de Granada: *Guia de los pecadores*.<br>Torquato Tasso (1544-1595). |
| Bizkaiak, lehen aldiz, elizbarrutiko gotzain baten, Juan Bernal kalagurritarren ikustaldia onartu. |   | Luther-en latinerazko lanen lehen argitalpen orokorra.<br>B. de Etxeparek ezagutzen den lehen euskal liburua: *Linguae Vasconum Primitiae* argitaratu. |
| M. Luther-en heriotza Eisleben-en.<br>Karlos V.ak protestanteak indarrez menperatzeko asmoa hartu eta Escamalda-ko gudari hasiera eman. | 1546.etik aurrera Michelangelo-k arkitektura lanari ekin zion batez ere. | † Francisco de Vitoria: Zuzenbide internazionalaren sortzailea (bere lan garrantzitsua: *Reelectiones Theologicae*).<br>Nafarroako gorteek, elizaren laguntzarekin unibertsitate bat eraikitzeko eginiko ahaleginak (porrota gertatu zen). |

| | INAZIO | JOAN | ELIZA |
|---|---|---|---|
| *1547* | *Irailak 1*: Araoz Espainiako lehen probintzial.<br>Azaroak 4: Gandia-ko unibertsitatea eraikitzeko bula. | | B. Carranza: *De necessaria residentia episcoporum.* |
| 1548 | Uztaila: Paulo III.an eginiko gogo-ihardunen onespena eta gomendioa. | Familia Osoa Arevalo hirira joan zen eta hiruzpalau urte egin bertan. | Iruñeko elizbarrutiko sinodoa (gotzain: A. Fonseca).<br>Mexico-ko lehen artzapezpiku izan zen Juan de Zumarraga beneragarriaren heriotza (1468-1548). |
| 1549 | Urtarrila: Oraindik gaisorik.<br>Otsailak 16: A. Jayo, A. Salmeron eta Pedro Canisio donearen Alemaniako misio handia antolatzen hasi.<br>Urriak 10: Indialdeko Probintzia, Xabierko Frantzisko donea probintzial zela, eraikitzea. |  | Ana de San Bartolome dohatsua, Sta. Teresaren lagun eta idazkariaren jaiotza (1549-1626).<br> |

| HISTOR-: Gizart-polit. | ARTEA | KULTURA, literat... |
|---|---|---|
| † Erresuma Batuko Enrike VIII.a.<br>Erresuma Batuko Eduardo VI.a (1547-1553).<br>Frantziako Enrike II.a (1547-1559).<br>Augsburg-eko interim edo Dieta.<br>Karlos V.ak Mühlberg-en printze protestanteak menperatu. | Michelangelo-k Vatikanoko kupula egiteko agindua hartu.<br> | Miguel de Cervantes (1547-1616). |
| Herbehereetan (Nederlan dan) banaketa gerlari hasiera eman.<br>Karlos V.aren eta Aita Santuaren arteko haustura.<br>Pascual de Andagoya (1495-1548), Peru aurkitu zuen geografoa. | <br>RECOPILA<br>con ſubtiliſſima inti | Pariseko parlamentuak «Nekaldiko Anaideei» misterio sakratuak antzeztea debekatu beretako ageraldi profanoen zioz.<br>Giordano Bruno (1548-1600).<br>Juan de Itziar-ek *Recopilación subtilísima, intitulada Orthographia pratica* argitaratu. |
| Nafarroako Margarita erreginaren heriotza Odos-en. | Xabierko Frantzisko donea 1549.ean Japoniara heldu (Japoniar bionbo batetan, XVI. mendeko pintura).<br> | J. du Bellay: *Défense et illustration de la langue française*. |

| | INAZIO | JOAN | ELIZA |
|---|---|---|---|
